

BAO/EGOITZA ELEKTRONIKOA/WEBGUNEA

BILBOKO PORTUKO AGINTARITZAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUAREN EBAZPENA. HORREN BIDEZ, BILBOKO PORTUAN ONTZIAK KONTSIGNATZEKO MERKATARITZA-ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA PARTIKULARREN AGIRIAREN ALDAKETA ONARTZEN DA

Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak 2017ko abenduaren 13an egin zuen bileran, Bilboko Portuan ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko baldintza partikularren indarreko agiriari (Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak 2012ko urriaren 5ean onetsi zuenari eta 2012ko urriaren 30ean aldizkari ofizialean argitaratu zenari) lotutako aurrekarien berri eman zen. Gainera, alderdi puntual batzuk eguneratu eta aldatu behar direla jakinarazi zen. Izan ere, zenbait hobekuntza gehitu behar zaizkio, nagusiki teknikoak eta arauzkoak, aipatutako merkataritza-zerbitzua hobeto emateko eta arautzeko helburuarekin. Aldaketek indarrean dagoen agiriaren 4., 6., 16., 17. eta 22. kapituluei eragiten diete. Beraz, horren arabera, Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak, 2017ko abenduaren 13an egindako bileran, hau ebatzi du aho batez:

1. Bilboko Portuan ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko indarrean dagoen baldintza partikularren agiriaren 4., 6., 16., 17. eta 22. kapituluaren aldaketa onestea; haren testu eguneratu osoa gehitu da (l. eranskina).
2. Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Bilboko Portuko Agintaritzaren egoitza elektronikoan argitaratzea. Egoitza horretan, halaber, aipaturiko merkataritza-zerbitzua arautzen duen agiriaren eduki eguneratu osoa argitaratuko da.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 114.1 c) artikuluan xedatzen duenaren arabera. Haren aurka, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahalko da Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluaren aurrean, hilabete bateko (1) epean edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahalko da Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi (2) hilabeteko epean (bi kasuetan, jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatuko dira), Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8.3 artikuluan, 10.1 m) eta 46. artikuluei lotuta, xedatzen duen moduan. Gainera, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso jarri ahalko da. Santurtzin, 2017ko abenduaren 13an. Lehendakaria, Asier Atutxa Zalduegi. Idazkaria, Juan Carlos Verdeal Pinto.

I. ERANSKINA

BILBOKO PORTUAN ONTZIAK KONTSIGNATZEKO MERKATARITZA-ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA PARTIKULARRAK

1. KAPITULUA - LEGEZKO OINARRIA

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Nabigazioari buruzko Legearen testu bategina (aurrerantzean, EPMLTB) onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren lehenengo liburuaren VI. tituluko V. kapituluak ezartzen du portuko zerbitzuak izan gabe portuko jarduerari lotuta dauden merkataritza-jarduerak direla merkataritza-zerbitzuak.

Jarduera horiek gauzatzeko, Portuko Agintaritzaren baimena eskuratu beharko da. EPMLTBren 139.2. artikulua ezartzen duenaren arabera, merkataritza-zerbitzuak Portuko Agintaritza bakoitzak zehazten dituen baldintzetara egokitu beharko dira, bai eta aplikagarriak diren gainerako arauzko xedapenetara ere.

2. KAPITULUA - XEDEA

Agiri honen xedea da Bilboko Portuko zerbitzugunearen barruan **ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua** emateko bete behar diren baldintzak ezartzea.

Baldintza partikular hauek gutxienekoak dira eta garatzen diren inguruneagatik edo jardueragatik aplikagarriak diren beste baldintza batzuei kalterik egin gabe ezartzen dira, kontuan hartuta, bereziki, zerbitzua emateko baimenak ez duela titularra salbuesten beste administrazio publiko batzuek beren eskumeneko eremuan legez eskatzen dituzten lizentziak eta baimenak eskuratzetik eta horiek egunean izatetik.

3. KAPITULUA - APLIKAZIO-EREMUA

Baldintza partikular hauek Bilboko Portuko zerbitzugunean EPMLTBren 69. artikuluan ezarritakoaren arabera mugatutako portuko espazioetan (emakidaren bidez kudeatzen diren espazioak eta instalazioak barne) diharduten ontziak kontsignatuz ontzi-kontsignatarioek gauzatzen duten jarduerari aplikatuko zaizkio.

4. KAPITULUA - ONTZI-KONTSIGNATARIOAREN DEFINIZIOA

Baldintza hauen ondorioetarako, ontzi-ustiatzailearen, armadorearen edo ontziaren jabearen izenean eta hura ordezkatzuz jarduten duen eta ontzia portuan igortzeko eta

gainerako arretak emateko behar diren kudeaketa material eta juridikoez arduratzen den pertsona fisiko edo juridikoa jotzen da ontzi baten kontsignatariotzat.

Kontsignatarioak ontzia portuan egotearen ondorioz sortzen diren tasak edo beste kontzeptu batzuk direla-eta ezartzen diren likidazioak ordaindu beharko dizkio zuzenean Portu eta Itsas Agintaritzari, EPMLTBn ezarritakoaren arabera. Ontzi-kontsignatarioak Portuko Agintaritzarekiko harremanetan izaera juridiko hori edukitzeko, beharrezko baimena eduki beharko du.

Kontsignatarioaren erantzukizuna, ontzi-ustiatzaileak ontziak garraiatzen dituen salgaiak kargatzen edo hartzen dituztenekiko hartutako betebeharrak betetzeari dagokionez, berariazko merkataritza-legeria aplikagarrian oinarrituko da.

Ontzi-kontsignatarioak, **bestek beste, zeregin hauek beteko ditu**, ontziaren ustiatzaileak, jabeak edo kapitainak zuzenean egiten ez dituenean, Bilboko Portuan kontsignatutako ontziari dagokionez:

- a) Ontzia portuko zerbitzugunean sartzearekin, geratzearekin eta hortik irtetearekin zerikusia duten edozein motatako kudeaketak.
- b) Ontziaren ustiatzaileak edo jabeak sinatutako garraio-kontratuekin zerikusia duen dokumentazio guztia prestatzea, aldatzea, ematea, aurkeztea eta sinatzea, hala badagokio.
- c) Ontzi baten ustiatzaileen, armadoreen, pleitarien, garraiolarien edo kapitainaren interesei laguntza, babesa eta defentsa ematea, ordezkatzeko dituzten kasuen arabera, ontzi bati lotuta.
- d) Hornidurak eta konponketak agintzea eta kudeaketa horiek burutzen direla ziurtatzea.
- e) Aurreko ataletan sartuta ez dauden eta kontsignatutako ontziari dagokionez ontziaren ustiatzaileak edo jabeak portu batean agintzen dizkion gainerako ekintzak, adibidez, administrazio eskudunek erabakitako ikuskapenen eta jarduketan koordinazioa, ontziarekin, eskifaiarekin edo kapitainarekin zerikusia duten hornidurak, kudeaketak edo zerbitzuak, etab.

Baldintza hauen ondorioetarako, ez da ontzi-kontsignatariotzat joko aurreko zenbakietan azaldutako egintzez arduratzen den baina ontziaren ustiatzailearekiko edo jabearekiko independentea den ordezkaria, ezta horiei lan-harreman baten bidez lotuta dauden pertsonak oro har edo, hala badagokio, judizialki izendatutako konkurtso-administratzailea ere.

5. KAPITULUA - ONTZI-KONTSIGNATARIOAREN ERANTZUKIZUNAK

TASA ETA ZERBITZUENGATIKO LIKIDAZIOEN INGURUKO ERANTZUKIZUNA

Ontzi-kontsignatariorak Portuko Agintaritzak egiten eta aurkezten dituen likidazioen ordainketaren erantzulea izango da, beti ere EPMMLTBn eta aplikatzekoa den gainerako araudian ezarritako baldintzetan.

Portuko tasei dagokienez, kasu jakin batzuetan, EPMMLTBk subjektu pasibotzat jotzen du kontsignatariora, zergadunaren ordezkotza, eta horretarako dagozkion zerga-betebeharrak bete behar ditu.

Sustapen Ministerioak hala aginduta EPMMLTBn ezarritako autolikidazioa egin ahal izateko irizpideak, modua eta epeak zehaztu arte, Portuko Agintaritzek egokiak diren likidazioak egingo dituzte.

Likidazioak zehazten den jakinarazpen telematikoko prozeduraren bidez bidali eta jakinaraziko dira. Horretarako, kontsignatariorak Portuko Agintaritzarekin dagozkion hitzarmen edo kontratuak sinatu beharko ditu eta harremanetarako helbide elektronikoa eman beharko du.

ERANTZUKIZUN ZIBILA

Ontzi-kontsignatariora bere ekintzek, ez-egiteek edo arduragabekeriek portuko edo Portu Agintaritzako pertsona edo ondasunei zein hirugarrenei ekartzen dizkieten kalte edo galeren erantzulea izango da, haren zerbitzuko langileek eragindakoak barne.

Ontziaren ustiatzailea edo jabea ontziak portuko enplegatuei, ondasunei edo instalazioei egin ahal dizkien kalte edo galeren erantzulea izan arren, Portuko Agintaritzak ontziaren kontsignatariorari erreklamatu ahalko dizkio kalte edo galera horiek, indarreko Bilboko Portuko eta Itsasadarreko Zerbitzuari, Antolaketari eta Araubideari buruzko Araudiaren 67. artikularekin bat etorriz.

ZEHAPEN-ARLOKO ERANTZUKIZUNA

Portu-arloko arau-hausteei eta zehapenei buruzko administrazio-erantzukizuna dela eta, EPMMLTBren 310. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

SEGURTASUN-ARLOKO ERANTZUKIZUNA

Ontziaren kontsignatarioak Portuko Agintaritzarekin eta salgai arriskutsuak onartzeari, manipulatzeari eta biltegiratzeari eragiten dien araudia eta segurtasun-sistemei (egintza antisozial eta terroristen aurkako babesari buruzkoak barne) eragiten dien araudia betetzearen inguruko eskumenak dituzten administrazio publikoetako gainerako organoekin elkarlanean aritzeko betebeharra dauka, portuko espazioetan. Ildo horretan, ontzi-kontsignatarioei egokituko zaie EPMLTBren 65. artikuluan ezarritako segurtasun-betebeharrak betetzea, baita portuko segurtasunaren arloan aplikatu behar den araudiaren ondoriozkoak ere. Era berean, kontsignatarioei egokituko zaie Larrialdietarako Barne Planarekin, Ontziak eta Portuko Instalazioak Babesteko Planarekin, Portuko Babes Planarekin eta portuko ordenantzekin bat etorritako dagozkien betebeharrak betetzea.

6. KAPITULUA - SARBIDE-ARAUBIDEA

EPMLTBren 139.1. artikulua arabera, merkataritza-zerbitzuak lehia-araubidean emango dira eta portuko erakunde publikoek zerbitzu horiek emateko lehia sustatzeko neurriak hartuko dituzte.

Baldintza hauek arautzen duten zerbitzua Bilboko Portuan emateko, aurretik Bilboko Portuko Agintaritzaren baimena lortu beharko da, eta zerbitzua bera jarraian zehazten diren baldintza partikular eta espezifikoetara egokitu beharko da. Nolanahi ere, Bilboko Portuko Agintaritzarekin portuko tasen edo tarifen ondoriozko zorrak dauzkatenak ezin izango dira izan ontziak kontsignatzeko zerbitzua emateko baimenaren titularrak.

BAIMENAREN ESKATZAILEAK AURRETIK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Baimenaren eskatzaileak dokumentazio hau erantsi beharko dio egindako eskaerari:

A. **Eskatzailearen nortasunaren egiaztatzea.** Pertsona juridikoen kasuan, jarduteko gaitasuna jarduera erregulatzen duten arauak jasotzen dituzten estatutuen edo fundatze-egintzaren, eskrituraren edo eraketa-dokumentuaren bidez egiaztatuko da; horiek behar bezala inskribatuta egon beharko dute dagokien erregistro publikoan, pertsona-motaren arabera. Enpresari indibidualentzat, ezinbestekoa izango da nortasun-agiri nazionalaren benetako kopia edo arauz ordezkatzeko duen agiriarena aurkeztea.

Espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa diren enpresariak erregistroetan egindako inskripzioa aurkeztu beharko dute edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu batekina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 58. eta 72.2 artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen

urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 9. artikuluan ezarritako ziurtagiriak aurkeztu.

Europar Batasuneko kide diren estatuetakoa ez diren atzerriko enpresek Munduko Merkataritza Antolakundearen zerbitzuen merkataritzari buruzko akordio nagusiaren (GATS) esparruan hartutako Europar Batasunaren konpromisoen arabera eskatutako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute eta jarduteko gaitasuna Espainiako ordezkari diplomatiko iraunkorraren txostenaren bidez egiaztatu beharko dute, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 55. eta 72.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz; bestalde, elkarrekikotasun-probari lotuta egongo dira, aipatutako konpromisoen arabera nahitaezkoa ez bada izan ezik.

Nolanahi ere, enpresariak baldintza partikular hauen xede den jardura egiteko edo zerbitzua emateko behar den enpresa- edo lanbide-gaikuntza eduki beharko dute (ontzi-kontsignatarioen EJZko alta, merkataritza-erregistroaren inskripzioaren ziurtagiria, etab.).

B. Hala badagokio, ordezkariak egiaztatzen duten agiriak. Baimen-eskaera beste baten ordezkari sinatzen edo aurkezten dutenek notario-ahalorde nahikoa aurkeztu beharko dute horretarako, baita nortasun-agiri nazionalaren fotokopia legitimatua edo, hala badagokio, legez ordezkari duen agiriarena. Lizitatuak pertsona juridikoa bada, merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, ekintza zehatz baterako ahalordea izan ezean.

C. Bilboko Portuko ordezkari baten izendapena. Harremanetarako datuak (helbidea, telefono finkoa edo mugikorra, fax-zenbakia, helbide elektronikoa eta, hala badagokio, web orria) hartu beharko ditu barne, eta ordezkariak Bilboko Portuko zerbitzugunea dagoen udalerrietako edozeinetan izan beharko du egoitza. Ordezkari horrek ahalmen nahikoa izan beharko ditu, eta harekin egingo dira balioz administrazio-jarduketak guztiak eta, bereziki, baldintza partikular hauen 5. kapituluaren segurtasunaren inguruan ezarritako interes orokorreko jarduketak.

D. Atzerriko enpresek edozein ordenatutako epaitegi eta auzitegi espainoleko jurisdikziori eusten diotelako adierazpena aurkeztu beharko dute, emandako baimenaren ondorioz zuzenean edo zeharka gerta daitezkeen gorabehera guztietarako; halaber, eskatzaileari egokitu ahal zaion atzerriko jurisdikzio-foruari uko egin beharko diote, hala badagokio.

E. Garatu beharreko jardueraren memoria eta epea. Zerbitzua osatzen duten jarduerak deskribatu beharko dira, honako hauek azalduz: zerbitzua emango duen erakundea, bulegoak eta instalazioak, kontratatutako langileak eta baimena eskatzen den epea.

F. Era berean, eskatzaileak 12. kapituluan eskatutako aseguruak daukala egiaztatzen duen dokumentazioa edo horretarako **aseguratzailerik batek sinatutako konpromisoa** aurkeztu beharko du.

G. **“e-puertobilbao” plataforma telematikoa jarduteko aldea eta ziurtagiri digitala**; horrela, plataformak emandako zerbitzuak nahitaezko kanal telematikoa izango dira ontziak, lehorreko garraiobideak eta salgaiak Bilboko Portutik igarotzearekin zerikusia duten informazio-truke guztiak kudeatzeko.

H. **Portuko Agintaritzaren jakinarazpen telematikoen zerbitzuko aldea, sinadura elektronikoa bidez.**

I. **Berariazko erantzukizunpeko adierazpena, baldintza partikular hauen I. eranskinean dagoen ereduaren arabera.**

7. KAPITULUA - HASIERAN EMANDAKO DOKUMENTAZIOAREN ALDAKETAK

Baimenduak konpromisoa hartzen du Bilboko Portuko Agintaritzari aurreko klausularen bidez eskatzen den dokumentazioari eragiten dion eta baimena eman ondoren eta indarrean dagoen bitartean gertatzen den edozein aldaketaren berri emateko.

8. KAPITULUA - BAIMEN-ESKAEREN EBAZPENAK

Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariari egokituko zaio, Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, baimen-eskaerak ebatzea, baita horiek aldatzea eta azkentzea ere. Baimena emateko espedientearen ebatzea jakinarazteko gehieneko epea hiru hilabete izango da. Baimena eman dela ondorioztatuko da baldin eta epe hori igaro eta berariazko ebatzpenik eman ez bada, portuko jabari publikoko ondasunen okupazio pribatiboa behar izan ezean. Baimena emateko prozedurari dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritako xedapenak bete beharko dira.

Jarduera edo zerbitzu bat garatzeko portuko jabari publikoko ondasunak okupatu behar direnean, espediente bakarra izapidetuko da, eta Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak administrazio-titulu bakarra emango du. Horren bidez, epe bererako baimenduko da portuko jabari publikoaren okupazioa eta jarduera; ebatzpena emateko epea zortzi hilabetekoa izango da eta isiltasunak ezespina ekarriko du. Era berean, Administrazio Kontseiluak baimena aldatzeko, azkentzeko eta eskualdatzeko eskaerak ebatziko ditu, jabari publikoaren okupazio-titulua aldatzeko dakartenean, eta, bestela, aurreko paragrafoan adierazitakoa kontuan hartuta jardungo du.

Ezin izango dira baimendu, inolaz ere, Portuko Agintaritzako langileak, ez eta langileek partaidetza edo zuzeneko interesak dituzten enpresak ere.

9. KAPITULUA - ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK

Baimenaren titularrak baimenaren xede den jarduera kudeatuko du, eta bera izango da arrisku eta ustekabeen arduradun bakarra.

Baimendua izango da hirugarrenei, Bilboko Portuko Agintaritzari berari edo horko langileei, zerbitzua emateko egiten diren eragiketa guztien ondorioz, izaera eta bolumena edozein direla ere, eragiten zaizkien kalte-galera guztien erantzulea.

Baimendutako zerbitzurako baliabide materialak eta beharrezko langileak baimenaren titularraren kontura eta kargura izango dira.

Baimendua izango da une oro legeria, araudia, arauketa edo baimendutako jarduerari lotutako betekizunak betetzeko arduraduna.

10. KAPITULUA - ONTZI BAT KONTSIGNATZEARI UKO EGITEA

EPMMLTBren 259.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ontzi baten kontsignatarioak hori kontsignatzeari uko egin ahalko dio alde bakarretik. Horrelakoetan, modu fedemailean jakinarazi beharko dio Portuko Agintaritzari eta Itsas Kapitaintzari uko-egite hori, eta Agintaritza bakoitzari dagokionez izango ditu ondorioak, komunikazioak egin arte bakoitzari dagozkion zorrak ordaindutakoan.

11. KAPITULUA - BAIMENAREN EPEA

Agiri honen arabera emandako ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko baimenen gehieneko indarraldia **bost (5) urte** izango dira, baimena emateko ebazpena jakinarazten den egunetik zenbatuta. Baimenak bost urteko aldietan luzatuko dira automatikoki, nolana ere baldintza partikular hauetako betekizunak etengabe betetzen badira.

Edonola ere, merkataritza-zerbitzua emateko jabari publikoaren okupazio pribatiboa egin behar bada, epea jabari publikoa okupatzeko baimendutako epe bera izango da.

12. KAPITULUA - ASEGURUAK

Ontzi-kontsignatarioek, baldintza partikular hauen 5. kapituluak eta 9. kapituluak aipatzen dituzten ekintzak, ez-egiteak edo zabarkeriak direla-eta eragindako kalte-galerei erantzuteko, beren erantzukizun zibil orokorrerako estaldura eduki beharko dute,

ontzi-kontsignatario gisa duten erantzukizun zibil profesionala eta hirugarrenei eragindako kalteak barne hartzen dituen, Bilboko Portuko Agintaritzak egoki irizten dion estaldurarekin, aseguratutako arriskua eta jardueraren bolumenei eta ezaugarriei dagokienez aseguratutako kopurua kontuan hartuta, hots, gutxienez 500.000 euro. Portuko Agintaritzari egiaztatu beharko zaio eta, horretarako, polizaren kopia eta ordainagiriaren kopia aurkeztu beharko zaizkio, ordainketak egunean daudela ziurtatzeko, gehienez hilabeteko epean, interesdunari baimenaren aldeko ebazpena jakinarazten zaionetik aurrera zenbatzen hasita.

Baimenduak indarrean izan beharko ditu, une oro, baldintza partikular hauek eta indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen aseguru-kontratuak, eta baimendutako zerbitzuaren inguruan betebeharrak hori ez betetzearen ondorioz sortutako kalte, kostu edo galera ororen erantzulea izango da.

Baldintza hauen 5. kapituluko ERANTZUKIZUN ZIBILA epigrafeak hizpide dituen kontingentziak estaltzeko, ontzi-kontsignatarioak kontsignatzen dituen ontziei dagokien aseguratzailearen ziurtagiria edo aseguruaren kopia nahikoa eskatuko dio ontziaren ustiatzaileari edo jabeari. Bertan, paragrafo horretan jasotako kontzeptuak aseguratuta daudela jaso beharko da. Portuko Agintaritzak edozein unetan eskatu ahalko du ziurtagiri hori.

13. KAPITULUA - PORTUKO TASAK

EPMMLTBren 170. artikuluko c) letran xedatutakoaren arabera, ontzi-kontsignatarioak, ontziak kontsignatzeko jarduerari dagokionez, kasuan kasuko jarduera-tasa ordaintzetik salbuetsita egongo dira, baldin eta haien jarduerak jabari publikoa okupatzerik ez badakar.

Merkataritza-zerbitzua emateko jabari publikoaren erabilera pribatiboa egin behar bada, dagokion tituluan ezarritakoa bete beharko da.

14. KAPITULUA - BERME EKONOMIKOAK

1. Portu Agintaritzaren aurrean bermatzeko baldintza partikular hauek arautzen dituzten jardueren ondoriozko betebeharrak betetzen direla, ontzi-kontsignatario bakoitzak Bilboko Portuko Agintaritzaren aldeko berme ekonomiko bat eratu beharko du. Hasierako zenbatekoa, gutxienez, 30.050 € izango da, eta zenbateko hori urtero berrikusiko da, ekitaldi bakoitzeko urtarilaren 1ean, baimenduaren aurreko urteko fakturazioaren hogeita hamabost eguneko batezbestekoa kontuan hartuta.

2. Bermeak, gehienez, hilabete bateko epean eratu beharko dira, interesdunari baimena eman zaiola jakinarazten zaionetik aurrera zenbatzen hasita, eskudirutan,

Portuko Agintaritzaren izenean egindako banku-txekearen bidez, banku-abal edo berme nahikoaren bidez edo zuzenbidean onartzen den edozein modutan. Banku-abala baldintza partikular hauen II. eranskinean jasotako ereduarekin bat etorriko da.

Epea igaro eta bermea eratu ez bada, partikularrak baimenari uko egiten diola ulertuko da eta, beraz, "ipso iure" iraungiko da.

3. Eratutako bermeak eskuragarri izango ditu Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariak.

4. Ontzi-kontsignatarioarentzako baimena iraungitakoan, 22. kapituluan ezarritako kasuetan, bermea itzuli edo ezeztatu egingo da, Bilboko Portuko Agintaritzak erantzukizunak azkentzeko eginbidea eman ostean, egiteko dauden likidazioak ordaindu ondoren eta, beti ere, berme horren galera osoa edo partziala bidezkoa ez bada kontsignatarioak bete ez duelako.

5. Salbuespenez, eta aurreko puntuko berme ekonomikorako aurreikusitakoa baino zenbateko askoz handiagoa likidatzea eragin dezakeen ontzi jakin bat edo eragiketa jakin bat kontsignatzeko zerbitzua bermatze aldera, Portuko Agintaritzako Zuzendaritzak berme ekonomiko egokia, jadanik gordailututakoaren osagarria, eskatu ahalko dio kontsignatarioari, zerbitzu horri aurreikusten zaion guztizko zenbatekoa batera estaltzeko. Salbuespenezko inguruabar hori bukatutakoan, bermea itzuliko da, interesdunak hori amaitutakoan eskatu ostean, aurreko paragrafoko prozedurari jarraituz.

15. KAPITULUA - PORTUKO AGINTARITZAK BERMEA ERABILTZEA

Betebeharrak ekonomikoak ordaindu behar dituen ontzi-kontsignatarioak betebeharroriek urratzen baditu, eratuko bermea berehala betearazi edo erabili ahalko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatzeagatik Portuko Agintaritzak berme osoa edo zati bat erabili behar duenean, ontzi-kontsignatarioak leheneratu edo osatu beharko du, hilabeteko epean, bermea erabiltzeko egintzatik aurrera zenbatzen hasita. Interesdunak bermea epe horretan leheneratu edo osatzen ez badu, baimena iraungiko da.

Ezarritako bermea leheneratu edo osatu gabe dagoen aldian, Portuko Agintaritzak bermea aurretik gordailutzeko eskatu ahalko du, bere eskumeneko eremuan ematen diren zerbitzuen tasak eta tarifak kobratzen direla bermatzeko.

16. KAPITULUA - KOMUNIKAZIOAK PORTUKO AGINTARITZAREKIN ETA PORTUKOMUNITATE LOGISTIKOKO GAINERAKO ENPRESEKIN

Ontzi-kontsignatarioek, Portuko Agintaritzarekiko eta portu-komunitate logistikoko gainerako enpresekiko komunikazioetarako, Portuko Agintaritzak haien esku jartzen dituen zerbitzu telematikoak erabiliko dituzte nahitaez, e-puertobilbao plataforma telematikoaren bidez.

Era berean, ontzi-kontsignatarioek konpromisoa hartzen dute Portuko Agintaritzari zerbitzuari buruz eskatzen duen informazio guztia emateko, portuko ustiapen orokorra hobetzeko estatistikak eta azterketak egin ditzan. Emandako informazioa isilpekoa izango da.

17. KAPITULUA - BEZEROENTZAKO INFORMAZIOA ETA KALITATEAREN HOBEKUNTZA

Bezeroei informazioa emateko eta ontzi-kontsignatarioek emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko helburuarekin, betekizun hauek bete beharko dira:

a) Ontzi-kontsignatarioek eragin ahal dieten portuko arauak zabalduko dituzte ontzi-ustiatzaileen eta -jabeen artean, baita portuko tasa- eta tarifa-araubidea eta aplikatzeko arauak ere, une oro ez-ordaintzeak ekiditeko eta ez jakiteagatiko erantzukizunak saihesteko asmoz. Dena den, Portuko Agintaritzak beharrezkotzat jotzen dituen informazio-kanalak ezarri ahalko ditu portuko zerbitzuei dagokienez.

b) Ontzi-kontsignatarioak konpromisoa hartzen du Bilboko Portuko Agintaritzak kalitatea etengabe hobetze aldera Bilboko Portuko zerbitzuak hobeto emateko iragartzen dituen batzordeetan eta lantaldeetan aktiboki parte hartzeko.

c) Era berean, kontsignatarioak konpromisoa hartzen du haren printzipalek Bilboko Portuan jasotako zerbitzuei buruz aurkezten dituzten erreklamazioak ahalik eta lasterren izapidetzeko.

18. KAPITULUA - ENPRESAREN KAPITALA

Ontzi-kontsignatarioak portuko eremu mugatuan sartzeko beharrezko baimenak eskatuko dizkio Bilboko Portuko Agintaritzako Ustiapen Zuzendaritzari, enpresakoa den eta espazio horietan jardueraren bat gauzatu behar duen pertsona bakoitzarentzat, eta haien jarduketa pertsonalen erantzule zibila izango da. Halaber, egiaztapen horiek itzultzeko erantzulea izango da egiaztapenak dagozkien pertsonak enpresakoak izateari edo portuko zerbitzugunean sartzeari eskatzen duten lanak egiteari uzten diotenean.

Gainera, behar bezala ahaldunduta zerbitzuak emateko eskaerari dagokionez haren ordezkari hartzen duen pertsonaren edo pertsonen berri emango du.

19. KAPITULUA - ERREKLAMAZIOAK ETA ERREKURTSOAK

Baldintza partikular hauek aplikatzeari edo interpretatzeari buruzko erreklamazioak Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariak ebatziko ditu, Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, tasei buruzko erreklamazioak izan ezik, horiei ekonomia- eta administrazio-bidean errekurtsoa jarri ahalko baitzaie, aukerako berraztertze errekurtsolari kalterik egin gabe, edo jabari publikoaren okupazio-titulu bati lotutako kontuei buruzkoak direnean, kasu horretan Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak eman beharko baitu ebazpena.

Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariaren edo, hala badagokio, Administrazio Kontseiluaren ebazpenek administrazio-bidea agortuko dute eta administrazioarekiko auzien bidean jarri ahalko zaie errekurtsoa, jurisdikzio-organo eskudunaren aurrean.

20. KAPITULUA - ZERBITZU- ETA ANTOLAKETA-ARAUDIA

Ontzi-kontsignatarioek Bilboko Portuko eta Itsasadarreko Zerbitzuari, Antolaketari eta Araubideari buruzko Araudia, portuko ordenantzak eta portuko jabari-publikoan aplikatzekoak diren gainerako araudiak bete beharko dituzte.

21. KAPITULUA - TITULARTASUN-ALDAKETA ETA ESKUALDAKETA

Baimenduak (inter vivos) egintzen bidez eskualdatu ahalko du emandako baimena, Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariak berariaz onartu ostean, Administrazio Kontseiluak eskuordetuta, eta kontuan hartuta eskubideetan subrogatzen denak baimen honen klausuletan ezartzen diren betebeharrak ere gain hartuko dituela. Eskualdaketa jabari publikoaren okupazio-titulu bati lotuta dagoen baimenaren ingurukoa denean, onarpena Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluari egokituko zaio.

Baimen baten titular den pertsona juridikoa aldatu, beste batekin fusionatu edo banantzen bada edo enpresa edo enpresaren jarduera-adarrak ekarri edo eskualdatzen badira, titulartasun-aldaketa egon dela ondorioztatuko da eta, beraz, aurreko paragrafoan aipatutako berariazko baimena beharko da.

Baimendua hilez gero, kausadunak, jarauntsi edo legatu gisa, haren eskubideetan subrogatu ahalko dira, baina horretarako eskaera egin beharko dute, hiru hilabeteko epean.

Kasu guztietan, baimena jasotzen duen horrek baldintza partikular hauetan ezarritako betekizunak eta baldintzak bete beharko ditu, eta ezingo da titulartasuna aldatu Bilboko Portuko Agintaritzak horretarako berariazko baimenik eman ezean, aipatutako betekizunak eta baldintzak egiaztatu ondoren.

22. KAPITULUA - BAIMENAREN IRAUNGIPENA

EPMMLTBren 139.6 artikuluan ezarritakoaren arabera, baimena arrazoi hauetakoren batengatik iraungi ahalko da:

- a) Titularrak lehenago uko egitea.
- b) Titular den pertsona fisikoa hiltzea (hala ere, 21. kapituluan xedatu bezala subrogatu ahalko da) edo titularraren nortasun juridikoa iraungitzea.
- c) Gaitzen duen tituluan ezarritako baldintzak ez betetzeagatik errebokatzea.
- d) Sortutako eta Bilboko Portuko Agintaritzak likidatutako tasa eta tarifei dagozkien bi likidazio gutxienez ez ordaintzea. Borondatez ordaintzeko epea igaro eta diru-sarrera egin ez denean sortzen da egoera hori.
- e) Bermea 14. kapituluan ezarritakoarekin bat ez ematea edo 15. kapituluan ezarritakoari jarraikiz ez leheneratzea edo osatzea.
- f) Merkataritza-zerbitzua emateko jabari publikoaren okupazio pribatiboa egin behar bada, okupazio horretarako baimena ematen duen titulua iraungitzeak baimena automatikoki iraungitzea ekarriko du, baimendutako titularrak ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua ematen jarraitzeko nahia berariaz adierazi ezean; horretarako, eskatzen zaizkion betekizunak bete beharko ditu.
- g) Bilboko Portuko Agintaritzari dagokion informazioa emateko betebeharra ez betetzea, informazio faltsua ematea edo informazioa behin baino gehiagotan osorik ez ematea.
- h) Ontzi-kontsignatarioarentzat ezarrita dagoen enpresa-jarduerak koordinatzeko betebeharra ez betetzea, emakida- edo baimen-araubidean eman gabeko espazioetan, EPMMLTBren 65.1 artikuluko bigarren paragrafoaren arabera.
- i) Hala badagokio, Portuko Agintaritzak emandako baimenaren tituluan xedatutako gainerako arrazoiengatik.

Baimena iraungitzeko prozeduran, interesdunari entzunaldia bermatuko zaio, aurretik aipatutako a) eta b) kasuetan izan ezik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

1. Baldintza partikular hauek indarrean sartzen direnean beren zerbitzuak ontzi-kontsignatario gisa ematen ari diren ontzi-kontsignatarioek hemen ezartzen diren xedapenetara egokitu beharko dute sei hilabeteko epean, argitalpen ofizialetik zenbatuta.

Bilboko Portuko Agintaritzarekin tasen edo tarifen ondoriozko zorrak ordaintzeke dituztenak ezingo dira baldintza partikular hauetan ezarritako araubidera egokitu.

2. Aipatutako epean egokitu ez badira, Portuko Agintaritzak iraungitzat jo ahalko du portuko eremuan jarduerak garatzeko baimena, baldintza hauen 22. kapituluko c) letran ezarritako prozeduraren bitartez.

3. Baldintza partikular hauen 14. kapituluan xedatutako betebeharren ondorioetarako, berme ekonomikoa kalkulatzeko, indarrean sartzen direnean ontzi-kontsignatario gisa zerbitzuak ematen ari diren ontzi-kontsignatarioentzat, aurreko urteko fakturazioaren hogeita hamabost eguneko batezbestekoa kontuan hartuko da.

AZKEN XEDAPENA

Baldintza partikular hauek Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dira aplikagarriak, Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak onartu ostean.

I. ERANSKINA - BERARIAZKO ETA ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

_____ jaunak, _____ enpresaren (_____ IFZ du, ontzi-kontsignazioan aritzen da eta _____(e)ko _____ kalean du egoitza) izenean eta hura ordezkatzuz,

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen dudan enpresak berariaz adierazten du honako alderdi hauek ezagutzen eta onartzen dituela eta konpromiso hauek hartzen dituela:

1. Bilboko Portuan ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko baldintza partikularretan, ministerioaren aginduz 1976ko apirilaren 6an onartutako Bilboko Portuko eta Zerbitzuari, Antolaketari eta Araubideari buruzko Araudia edo hura ordeztzen duen araudi edo xedapenean eta portuko eremuan aplikagarriak diren gainerako arauetan ezarritako xedapenak betetzeko.

2. Bilboko Portuko Agintaritzak likidatutako tasak eta tarifak, une bakoitzean indarrean dauden arau-xedapenak edo Bilboko Portuko Agintaritzako Administrazio Kontseiluak

hartutako erabakiak aplikatzearen ondoriozkoak, ordaintzekoa; horretarako, dagozkion likidazioak ezartzen den jakinarazpen telematikoaren prozeduraren bidez jakinarazteko, Portuko Agintaritzarekin hitzarmen edo kontratu egokiak sinatuko ditu eta harremanetarako helbide elektronikoa emango du.

3. Bilboko Portuko Agintaritzari tasa, tarifa edo zergengatik daukan edo izan dezakeen edozein zor ordaintzekoa, lagapen edo baimenagatik titular den finken gaineko ondasun higiezinaren gaineko zerga barne, baita ontziaren kontsignatario gisa dagozkion zuzeneko erantzukizunaren edo erantzukizun subsidiarioaren ondoriozko eskubideak, kargak, matxurak, kalte materialak eta gainerako kopuruak ere, eta indarrean dauden xedapenen arabera egotz dakizkiokeen ordainketa eta gastu guztiak ere bai.

4. Bilboko Portuan ontziak kontsignatzeko merkataritza-zerbitzua emateko baimenaren espedientean aurkeztutako dokumentazioan aldaketarik egon bada Bilboko Portuko Agintaritzari horren berri berehala ematekoa.

Eta ondorio egokiak izan ditzan, berariazko eta erantzukizunpeko adierazpen hau sinatzen dut, ____ (e)n, _____ (e)ko ____ aren ____ (e)(a)n.

Sin.: (Merkataritza-enpresaren ordezkaria)

II. ERANSKINA - BANKU-ABALAREN EREDUA

(Erakunde bermatzailearen idazpurua eta helbidea)

..... (e)k (bankua, aurrezki-kutxa, finantza-erakundea edo Espainian jarduteko baimena duen elkarrekiko berme-sozietatea), eta jaunak eta jaunak haren izenean eta hura ordezkatzuz, egintza honetan behartzeko ahalmen nahikoak baitituzte, (e)(a)n (e)ko notarioaren aurrean emandako notario-ahalordearen arabera, protokolo-zenbakiarekin, eta (e)k (gordailu-kutxa orokorraren aholkularitza juridikoa edo estatuaren abokatutza) (e)(a)n, askietsita, zenbakiarekin, agiri honen bitartez, indar betearazlea edukitzea eta lehentasunezkoa izatea nahi baitu, enpresa, IFZ duena, BERMATZEN DU Bilboko Portuko Agintaritzako lehendakariaren aurrean, solidarioki eta edozein zordun nagusiren ordena-, banaketa- eta eskusio-onurei berariaz uko eginez, EUROTAN (..... €), BILBOKO PORTUAN ONTZIAK KONTSIGNATZEKO MERKATARITZA-JARDUERA gauzatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeko BERME gisa eta, bereziki, fidantzadunak egun Bilboko Portuko Agintaritzarekin edozein tasa, tarifa edo zergengatik dauzkan zorrei erantzuteko, lagapen edo baimenagatik titular den finken gaineko ondasun higiezin

gaineko zerga barne, baita ontziaren kontsignatario gisa dagokion zuzeneko erantzukizunaren edo erantzukizun subsidiarioaren ondoriozko eskubideak, kargak, matxurak, kalte materialak eta gainerako kopuruak ere, eta indarrean dauden xedapenen arabera egotz dakizkiokeen ordainketa eta gastu guztiak ere bai.

Abal hau mugagabea da eta Bilboko Portuko Agintaritzak formalki ezeztatu arte ondorioztatu behar da indarrean dagoela. Era berean, Bilboko Portuko Agintaritzak lehenengo eskariz edo eskaeraz betearazi ahalko du; horretarako, erakunde abal-emileari errekerimendua baino ez dio egin behar izango, abalaturako enpresak egin duen ez-betetzearen, betebeharraren, zorraren edo erantzukizunaren berri emateko.

Berme hau Espainiako legearen manuek arautzen dute, eta hura interpretatu nahiz betetzeko Bilboko eta Euskal Autonomia Erkidegoko auzitegi eta epaitegiek emandako manuei jarraituko zaie, beste edozein foruri uko eginez.

Agiri hau(e)(a)n inskribatu da Bermeen Erregistro Berezian, zenbakiarekin.

Eta hala ager dadin eta ordaintzera behartuta egon gaitzen, hau sinatzen dugu,(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

(Sinadurak)